

FUNTSEZKO JARDUERAK

Jostailuen liburutegirako beharrezkoak diren jostailuak erosiko ditugu, eguneratuz joango gara. Jostailu hauek 3 guneetan bereiztuko dira. Lehenengo zatian, futbolina, billar... egongo dira. Bigarren zatian, mahai jolasak aurkituko dituzu (partxisa, kartak...) eraikuntzarako jostailuak eta panpinak edukiko ditugu. Azkeneko gunean, bolaz beteriko igerilekua bat eta sukaldaritza jokoak egongo dira.

Hasieran, gure enpresa martxan jartzeko behar ditugun jostailuak jostailu enpresa bati erosiko dizkiegu. Enpresa honek prezio berezia egingo digu, trukean guk diru kopuru txikia eskainiko diegu. Behin gure enpresa martxan dagoela, gure bezeroek haien jostailuak gurera ekartzea baliatuko dugu.

Produktua gehiago saltzeko eta pertsona gehiagori iristeko, publizitatuko dugu sare sozialetatik.Instagram eta Facebook bezalako sare sozialak erabiliko ditugu. Bestalde, enpresaren telefono zenbakia web-gunea, korreoa eta APP-a eskaintzen diegu bezeroei. Gainera, baliabide hauez gain, fisikoki gure lokalera etortzeko aukera bermatzen dugu.